




danboan

2024 urria

264^{ak.}



Jon Egiguren
hogei urte
Aizarnari begira





675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



erdikalea 3
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44




URRIA									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31									

ABENDUA									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31									



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutixi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnor: 943148134
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Landetxea eta jatetxea
943 148 005



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761



ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!



Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

Aizarna eta Arroabea Txapeldun

Jone Bergararen audioa: "Hi, Onin, Atarikoa idaztea dagokin. Hilabete honetan Arroabea eta Aizarna, Aizarna eta Arroabea". Alegia, bi auzoak direla protagonista erabatekoak. Herritar askok jakingo duzuen bezala, urriaren 12an Txikitahunian Haundi eguna ospatu zuten Arroabean; Jone Bergarak berak Jon Egigureni egin dio elkarrizketa, haren aizarna.com webguneak hogeitun urte egin dituelako; eta auzotarren ekinak borobiltzeko Argiola aipatu behar: Zestoako erdigunean baino lehenago, Argiolarren eskutik, Aizarnan eta Arroabean jarriko dituzte eguzki plakak, herritarrek ekarpen ekonomikoa eginda, herritarrek energia eskuratzeko.

Danbolin elkartearen inguruan ibiltzen garenok sarri samar entzuten dugu auzoak ez ote diren txiki sentitzen, eta askotan, Zestoako erdiguneak baztertuxe ere bai. Danbolinek ez du uste auzoak "txiki" direnik eta urriko zenbakia horren adibide da.

Norberaren etxeko atea itxi eta besaulki erosoan plataforma digitaletako telesailak ikusten orduak eta orduak pasatzen ditugun garai hauetan, pizgarri galanta da Arroabea begira jartzea. 2016tik ari dira Txikitahunian Haundi eguna antolatzen, eta egun hori ez da txanpinoi bat, Ohiana Calparsorok idatzi duen artikulua irakurri besterik ez dago horretaz jabetzeko. Urteak daramatzate auzotarren arteko harremanak lantzen, gure kulturari eta hizkuntzari nola eutsi pentsatzen, herritar guztien parte-hartzea bultzatzen... eta orain, etorri berriei harrera plana egiten hasi dira. Auzoa bizitzeko grina lau haizetara zabaltzen dute. Kaxkoko zestoarrok ez ote dugun gehiago begiratu behar alde hartara... badaukagu zer ikasia.

Jon Egiguren, berriz, Aizarnaren iragana harrapatzen ahalegindu da aizarna.com webgunean. Bi markadatarako lana izan badu, auzoa norbait izan den seinale. Auzoaren historia, pasarteak, base-riak, meategiak, eraikin erlijiosuak... idatzita, argazkitan eta bideoan ere bai. Atzera begira bai, baina gaurko Aizarnari ez dio muzinik egin. Argazkiak ikusi besterik ez dago. Egigurenek urte asko daramatza Azpeitian bizitzen, baina ez dauka Aizarna saltzeko, ezta aizarnarrak ere. Bere erara ari da auzoa hauspotzen eta maitatzen.

Eta bukatzeko, Argiolarren hurrengo pausoak jaso ditu artikuluko batek. Arroabean eta Aizarnan, bertan sortu nahi dute energia eta bertan kontsumitu.

Auzoak auzoentzat ari dira lanean. Beraiek erabakiko dute txikitik, handitik edo nondik ari diren eragiten, baina zalantzarik ez dago eragiten ari direla. diezia egun balioa duten kontuei, iraun dezaten.

onintza irureta azkune



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argibarabaitlea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR Etxea. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUTANI, PERU GARTZIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabaitle/auzenbaitle taldea: NAGORE GELLERIA, JON ARCANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disainua eta mahebatzea: ENEKO ARISTI
Inprimategia: GERTU (OÑATI).
Lege gordailua: SS-1108/2000
ISBN: 1576-9429



Denak emanda?

Aupa Sara! Denak emanda? Zu bai! Musika, udal oposaketak, Kobaz Koba prestatzen, Urepelen dantzan jo eta ke... Urepel aipatuta, gure herriarekin senidetuta dagoen Birzeit herriarekin (Zisjordania) gogoratu naiz. Nola ote dabilta. Palestinar herriari eta ekialde hurbilean, hain urrun, gure begien aurrean genozidioa jasaten ari diren herrialdeei nire elkartasuna adierazi nahi diet. Eta, hori esanda, zure enbidoari adarretatik heldu beharko diot orain! Amabirjinen balorazioa, ba... Arrazakeria kasu batzuk kenduta, "ondo" joan direla esan beharko dut! Nik, festak ondo disfrutatzeke, egunak ondo gestionatu behar izaten ditut. Aurtengoak nekezak eta emozioz beteriko amabirjinak izan dira. Aurten, Bandarekin txupinazoan kale egin behar izan nuen, Gure Txokoakoek udaletxeko balkoian elkarteko bandera astintzen jarri baininduten; ohore hori izan nuen. Baina



arratsaldean ezin kalerik egin: 17:30ean Amparito, plazan pasodobleak, Xoxote, pasodobleak Erdi Kalean... Urtero bezala tronboiari putz-eginez. Kuadrillen eguna, berriz, aurten sekula baino lasaiago, hurrengo egunean zer zetorren ikusita: Amabirjin eguna! Egunik onena: diana, Goizeko Izarra, hamaiketakoa, udal ordezkari, dantzari eta elkarteetako kideekin dantzaurrea, alkateak eskainitako aureskua, Bandaren kontzertua, Pagioranean merezitako bazkaria eta, gero, berriz, arratsaldeko azken saioa. Saio hori ez dut sekula ahaztuko: plazan gure amari egindako omenalditxoak malkoak atera zizkidan, eta Erdi Kalean berriz bere bilobetako batek eskainitako "Nerva" pasodoblearen tronpeta soloak hunkituta utzi ninduen. Emozioz beteriko Amabirjinak izan ditut. Eta horrelako egunari bukaera emateko, azken oparia, erromeria: eguneko emozioak, malkoak alde batera utzi, txapelari buelta eman eta, zuk diozun bezala, Babarrunbakoekin denak emanda eman nien agurra aurtengo amabirjinei.

Eta, bukatzeko, nire enbidoa urteetan Saharakoei laguntzen ibili den eta gaur antzezle lanetan buru-belarri dabilen Inma *Kio*teri botako diot. Nola ibili da Lili Jaurregiko Andre Madalen Bilboko Campos Eliseosen euskal aktoreen sariak aurkezten?

Jon Irure

pintada. **BOLUNTARIOAK.** Zestoan egiten diren lan boluntarioak zerrendatzeak zutabe honen 1.000 karaktereko muga gaindituko luke, agian bikoiztu ere bai.

Halere, gero eta gehiago kostatzen zaigu boluntarioak 'fixatzea', baita boluntario izateko izena ematea ere --ez baikara salbuespena--. Eta, harrigarria bada ere, behin izena emanda eta ekintza burututa poza eta asebetetze aurpegiak nabariak dira. Gustura sentitzen gara egindakoagatik: ePELIaneko saioan barre algarak entzun ditugulako, Kontaidazun haurrak fantasian murgilduta ikusi ditugulako, Irakurle Gazteen Klubeko nerabeen hausnarketak harritu gaituelako eta beraiekin sentitu dugun konplizitatea oso berezia izan delako.

Eta horiek Euskara Forotik antolatutako hiru ekintza besterik ez dira. Beste horrenbeste esan dezakete Guraso Elkarteek antolatutako ekintzetan parte hartu dutenek, Euskaltegiko egitasmoetan, kirol taldeetan, auzo elkarteetan...

Zestoak harro esan dezake herritarren erantzuna handia dela, herriko 'bizitza' denen artean eraikitzen dugula.

Eta zestoarrok konturatu beste toki askotan ez dagoen pribilegioa dugula: parte hartzekoa, ekarpena egitekoa. Benetan ez duzu probatu nahi?

euskara foroa

BESARKADAK

Ez dakit "besarkada" hitza ba ote datorren euskarazko hitz politen zerrendan. Hitzaren jatorria besarkadak sortzen duen "besoen arteko arku" izan daiteke.

Googlek oparia egin zidan behin, eta mugikorrean "Besartean" izenburudun oroitzapena bistarazi. Nondik aterako zuen inoiz entzun gabe neukan hitz hura? Nire argazkiekin egindako segida hartan, "beso-artean" geunden/zegoen nire inguruko jendea. Bi sentimendu/pentsamendu sortu zizkidan. Lehenengo, haserrea: nor da Google nire argazkietan aukeraketa egiteko? Baina ez zidan asko iraun; izan ere, oso momentu politak erakusten zizkidan.

Besarkada denak ez dira ederrak, ordea. Bakoitzak gure espazio bitala dugu (horrela deitzen da eroso sentiarazten gaituen besteenganaiko distantzia). Besarkatzean, norbere espazioa inbaditzen da, eta hori ezin du edozeinek egin; biek nahi izan behar dute funtziona dezan. Gorputza oso jakintsua da, eta besarkada atsegina bada, oxitozina sortzen du, maitasunaren hormona. Aldiz, borondatearen kontrakoa denean, alerta egoeran jartzen da, tentsioarekin lotutako hormonak askatzen dira, eta ez da magiarik sortzen.

Batzuek erraz ematen dituzte besarkadak. Izan ere, egoera askotan balio dute; iristean edo alde egitean agurtzeko, poza ospatzeko, pena samurtzeko, maitasuna adierazteko... Umeek titia hartzean ere, amek besartean dituzte, eta txikitxoek ere besarkatuz edaten dute. Zenbat ordu pasatzen diren horrela askotan kontziente ere izan gabe! Besarkadek oxitozina jariatzeko ez dago kontaktu fisikoaren beharrik; ikusitako besarkadek ere ondo sentiarazi gaitzakete. Zirrara eragiten dit gure lau urteko alaba lagun minarekin besarkatzen ikusteak; elkarrengana korrika joaten dira, barrez. Beste besarkada batek ere barrua eta begiak bete izan dizkit. Oso gertu bizi diren arren, adinagatik mugitzea kostatzen zaienez, bi aldiz bakarrik elkartu dira aurten amona eta bere laguna. A ze bi besarkada! Bolada batean Whatsappeko profilean nuen argazkia lagun batek ikusi, zuri-beltzean marraztu eta koadro batean oparitu zidan. Han, gure bi umeak elkarri begira daude, eta alabak anaia jaioberria beso ez inguratuta dauka. Ospitaletik etxera etorritakoan Amets ohean etzanda ezagutu zuen Maddik; alboan etzan eta besarkada irribarretsu goxoa eman zion. Momentu hura memorian daukat. Argazkia biharamunean izan zen, alabak esnatu eta egun onak eman zizkion, eta guri bigarren oparia egin. Orduantxe atera nuen argazkia. Maite zaituztet!



HERRIKO BONBILLA GUZTIAK

Utx! Sukaldeko bonbilla erre zait, uste baino azkarrago. Banoa Ugarterenera, berri bat erostera. Atariko atea ireki eta, mmmm, a ze kanela usain gozoa. Ari dira orain ere Romanaren okindegian *cinamon rollak* egiten. Etxerakoan hartuko diet dozena erdia.

Gauzak ez dira asko aldatzen egunez egun.

Tomas *Bittarte* bizikleta elektrikoari bateria

aldatzen ari da; Apategirenean, zakukada bat glutenik gabeko irin oramahaian husten; Zunzunegiren denda-ostean, online

eginiko eskariren bat prestatzen; eta Sasiandarrak, jo eta su, hanburgesa beganoak egiten. Plazan ere betikoak dabilta hara-hona. Juanitak Pokemonen kromo-bilduma berriaren kartela jarri du ate ondoan, eta neska-mutil talde bat Koiote aurea dago, *bruncha* egiten. Bapo bizi dira, alajaina!

Laranjadira sartzerako hor entzun ditut, Herrerorenetik ia mugitu ere egiten ez diren gazteak eta Olatz elkarri adarra jotzen. "Egun on, Olatz! Ekarrri al dizkidazu Telegram bidez eskatu nizkizun ahuakateak eta *pak choia?*" galdetu diot, eta berak erantzun "Ahuakateak ez. Oraindik ez daude biltzeko moduan eta". Berehala, Blanki *dendatxikitik* irten da, eta "Morcuendetarren fruta dendan badituk, urrutira joan gabe" esan dit. Hau da hau herri giroa, bere onenean.

Eta banoa beherantz, arrandegian egin berri duten sushiari begira. Etxeko egongela dirudien zapata dendan, Ana Marik Crocs berriak jarri ditu salgai, eta, ondo-ondoan, laser ebakigailuaz eginiko zurezko apaingarriak lixatzen ari dira zelaia-tarrak. Jaki-na, Miren botikako potoei hautsa kentzen dabil gaur ere, eta hiruzpalau gaztetxo, Baltxolarenean, betaurreko birtualekin denbora pasa.

"Egun on, Joxe! Bonbilla berri bat behar dut sukalderako, erroka handikoa" esan dut, burdindegiko atea ireki orduko. "Probatu ezazu horman daukazuen oholtxo horretan, azkena bezala, ea luzaroago irauten didan" bota diot txantxetan, eta hark erantzun, "Hik barre egingo diok gure oholtxo honi, baina Amazonek ez dik halako zerbitzurik ematen". Ezen 40 urtez azpikoek ez baituzue jakingo, baina garai batean Ugarterenean pizten ziren, lehenbizikoz, herriko bonbilla guztiak.



imanol galegi

eguzki iriolagoitia

25 URTE ZITUENETIK
 AZPEITIAN BIZI BADA
 ERE, AIZARNAREKIN
 LOTZEN DUEN ZILBOR-
 HESTEA EZ DU INOIZ
 ETEN JON EGIGURENEK
 (AIZARNA, 1949).
 AURTEN 20 URTE BETE
 DITU AIZARNA.COM
 BERE WEBGUNEAK, ETA
 AITZAKIA POLITA
 IRUDITU ZAIGU
 ELKARTU ETA
 BERRIKETALDIA
 EGITEKO. ZALANTZA
 HANDIRIK EZ
 BAGENUEN ERE, ARGI
 GELDITU ZAIGU
 ZENBAT MAITE DUEN
 AIZARNA.

Nola gogoratzen dituzu webgunea sortu zenueneko hasiera haiek?

Gogoratzen dut webgunea sortu aurretik artikuluren bat edo beste ere idatzi nuela Danbolinen. Nonbait irakurri nuen auzoetako edonork parte har zezakeela aldizkarian, eta kultur etxera deitu eta Fernandok azaldu zidan irainik ezean... argitaratzen zituztela jasotako idatziak. Orduan sartu nintzen abentura honetan, ikasketa handirik gabe, egia esan. Ilusioz hasi nintzen Aizarnako kontuak idazten.


Lehen idatzia 2.000 urteko Danbolineko hirugarren zenbakian argitaratu zen; aizarnarek "mariñelaren bordara" egin zuten eta aspaldi ahaztua zen bidaia bati buruz aritu nintzen. Neure orria sortu baino lau urte lehenago izan zen hori. Meategien inguruan idazteko ere gogo handia nuen, eta horri buruz ere egin nuen beste artikulua bat. Danbolinek webgunea martxan jarri zuenetik Komunitatean ere parte hartzen dut, "Aizarnari begira" txokoan.

2004an ireki zenuen webgunea. Danbolinek baino 10 bat urte lehenago.

Bai, 2004ko urte hasieran, eta ez du geldialdirik izan, aktibo egon da beti.

Aizarnako gertaerak jaso eta herrigintza lantzeko interesa nuen, eta orriak horretarako aukera emango zidalakoan sortu nuen. Alabaren senarra ibiltzen zen lan horietan, eta, asko aipatu eta gero, berak egin zidan webgunea eta hogeitau urte hauetan berak egin dizkio egokitzapenak. Hasieran xumeagoa zen; gero, beharren arabera, atal gehiago sartzen joan nintzen, eta gaur egun zazpi ataletan dago banatuta. Datu zehatzik ez dut, baina esango nuke garai hartan Zestoako Udalak ere ez zuela webgunerik.

54 urte nituen orduan, eta gogoratzen dut tailerretik ateratakoan egiten nituela lan hauek. Gure belaunaldiko jendeak ez zuen ia ordenagailurik erabiltzen, baina ni gustura ibiltzen nintzen.



Betidanik izan dut irakurtzeko zaletasuna, baita argazkiak ateratzekoa ere, eta biak uztartu nituen. Argazki eta bideoen mundua dezente kontrolatzen dut, eta hor ez dut izaten arazo handirik. Lanetan zailena idaztea izaten da niretzat, baina geroz eta hobeto moldatzen naiz. Euskaraz alfabetatzeko ikastaro batzuk egin nituen Franco hil eta gero. Gauetan elkartzen ginen Laxaro Azkunerekin. Gaur egun, gainera, Interneteko aplikazio eta zuzentzaileek ere asko laguntzen dute.

Zer gai lantzen dituzu gehien zure webgunean?

Aizarnako historia, pasarteak, argazki zaharrak eta neure artikulua pertsonalak sartzen ditut, eta baserrien argazkiak, meategiak, Aizarnako eliza eta ermitak eta santuak ere landu izan ditut. Aizarnako bazter gehienak irudietan jasota ditudala uste dut. Gehien landu dudana gaia altzolarastarrena izan da. Ondare gehiena ere haiek zuten, haiek ziren elizaren jabeak, patronatua ere haiena zen, palazioa eta etxe pila bat ere bazuten, eta jasotako dokumentu gehienak ere haienak ziren.

Gairen bat gutxi landu izanaren sentsazioz baduzu?

Faltan bilatzen dut artxibo zaharretan eta aztarka gutxiegi egin ote dudana; denbora falta zitzaidalako edo letra zahar horiek ulertzeko zailtasunagatik izan daiteke beharbada. Horretarako espezialista samarra ere izan behar da eta. Argazki za-

harrekin osatutako atal bat ere badut, eta hori ere gutxiegi landu ote dudana pentsatzen dut tarteka. Mordoxka dut bilduta, baina gehiago ere egongo dira; agian pertsonalegiak, ez dakit.

Jendeak lagunduko zizun argazki zaharrak osatzen...

Bai, webgunean dauden argazki zaharretatik hamarretik bederatziz jendeak emandakoak dira. Ni eskolan hasi nintzen garaiko maisu Don Juan Epelde zena argazki mordoxka dut. Aizarnan gerra denboran egon zen beste maisu batenak ere pila bat daude; kartzelan egon zen, falangista ote zen ere esan zen... Aizarnan urte mordoa egin zuen, lagunak eta zeuzkan, eta argazki mordoa zuen. Webgunearen bitartez nirekin harremanetan jarri ziren haren ondorengo batzuk, eta egun batean etorri eta eman egin zizkidaten. Dokumentu mordoa ere bazen tartean, eta udaletxera eraman genituen. Beste batzuk nik ditut jasota. Denak ez dira publikatzekoak; tarteka gai batzuk delikatuak izaten dira, izenak eta agertzen direlako...

Horrek ere emango zizkizun lanak; kontuzko gaiek, alegia...


Auzo txiki hauetan denok ezagutzen dugu elkar eta

kontuz ibili behar da. Gauza batzuk badituz nire ustez argitaratu ezin direnak. Sentimendu asko daude tartean, eta denean ez dago sartzerik.

Beti zeuk elikatu izan duzu webgunea?

Bai, orri pertsonala da. Bere garaian gutun bidez Aitzbarna elkarteari eskaini nion parte hartzeko aukera. Elkartek antolatzen zituen ekintzak eta herri mugimendua ere han

“ILUSIOZ HASI
NINTZEN
AIZARNAKO
KONTUZK
IDAZTEN”



zegoen, baina ez nuen erantzunik izan. Nik uste dut mundu hau oso urrun gelditzen zitzaiela garai hartan eta ez zutela ondo uler-tu. Ondoren, neure izenean jarraitu dut; baina herriarena balitz bezala idazten dut, beti ere ideologia alde batera utzita.

Argazkiz osatutako hiru liburu ere kaleratu dituzu.

Bai, hala da. Bi liburu atera ditut Aizarnako baserri eta jaietako irudiekin, eta beste bat Gipuzkoako parrokia zaharren argazkiekin osatu nuen. Azken horrek dezenteko lanak eman zizkidan, Gipuzkoa osoan ibili nintzen parrokiak-parrokia.

Aizarnako jaietako argazkiak urtero jasotzen ditut, eta gehien bat horiekin osatutakoak dira beste bi liburuak. Artxiboan askoz gehiago ditut, baina denak ezin nituen liburuan jaso. Dena den, argazki guztiak ondo jasoak ditut, eta hor gel-dituko dira etorkizunerako.

Eta bideoak?

Youtubeko Aizarna.com kanalera igotzen ditut. Mordoxka dago, festen ingurukoak eta... Jendeak badu joera horiek ikusteko. Aizarnarrak izango dira gehienak, baina kanpo-koak ere egongo dira seguruenek. Orain dela urte batzuk hartutako irudiekin osatutako bideoak ikusten jartzen naiz tarteka, eta jende asko falta da... Beldurra ere ematen dit!

Antolatu ote da zerbait Aizarnan zuz argazkirik atera gabekorik?

Asteburuetan Aizarnan egote naiz normalean, eta gustatzen zait hasitako lanarekin jarraitzea. Nik uste dut gehienak egongo direla, zerbait faltako da baina...

Ez da lan makala. Pixka bat kostako zaizu...

Geroz eta gehiago. Adinean aurrera goazen neurrian, festetara ere ez gara lehengo interesarekin joaten... Baina, orain ere, ekintza kulturalen bat edo bada uste dut gehienak harapatzen ditudala. Orain arte! Nik lagatzen dudanean ikusiko dugu zer gertatzen den. Libre dago beste norbaitek egin nahi badu; lana bes-terik ez du hartuko. Nik urte asko-tako lana daukat hor, baina nirea ere noizbait bukatuko da.

Webgunean atal berezia du Santa Engrazik eta bere erlojuak.

Azken urte hauetan, jubilatutako ondoren, auzolanean ere gustura ibiltzen naiz Santa Engraziko auzolan taldean. Ermitako erlojua zaharberritzeko lanetan ibili nintzen, eta hura zaintzeaz ardu-

**“TRISTURA PIXKA BAT
BADUT BARRUAN
MEATEGIEN AZTARNAK
DESAGERTZEN IKUSTEN
DITUDALAKO”**



ratzen naiz orain. Nire ogibidea mekanikari lotuta egon da beti, eta lan haue-tan ez dut zailtasunik ikusten; eta, gainera, gustuko lanak ditut. Zestoako eta Arroako erlojuak eraberritzeko lanetan ere buru-belarri ibili nintzen. Aizar-nakoa falta da orain. Zalantza batzuk tarteko eraberritu gabe dago, baina es-pero dut hori ere laster konponduko dela.

Antzematen zaizu Aizarna asko maite duzula

Ezkundu nintzen arte bizi izan nintzen Aizarnan, 24-25 bat urtera arte. Aizar-nako bizipenak niretzat beti zoragarriak izan dira: hasi taberna bazterreko tertuliak, lagunarteak, zapatu iluntzeko tabernako saltsak, gaztetako jolasak eta mus partidak, eskolan igarotako egunak, jolasak, igande arratsaldeetako dantzalekuko gozamenak... oroitzapen zoragarriak ditut.

Nahiz eta adinean aurrera joan, Aizarnan gaztetan egindako lagunak ditut go-gokoen oraindik ere. Aizarnan dago nire bizitzako zati handi bat, eta ezin dut galdu herri horrekin dudana lotura. Batzuek esaten didate gehiegizkoa dela, eta izango da beharbada, baina nire barruan zerbait itsatsita gelditu zait, eta behin honezkero hala izango da betiko.

Oroitzapen txarririk ez duzu?

Distira duen guztia ez da urrea izaten, eta tristura pixka bat badut barruan meategien aztarnak desagertzen ikusten ditudalako. Askotan aipatu bai, bide-ak egin behar direla eta bata eta bestea, baina ikusten dut ez dugula ezer egin.

Eta pertsonalean?

Egun samintsuenak, beharbada, Agiñako gure baserria kendu zigutenekoak izango dira. Aita Apategi baserrikoa zen, baina gu Agiña baserrian jaiotakoak gara, hamar anai-arreba. Lau behirekin hasi ginen! Askotan esan izan dut “milagro aleman” izan zela hori. Eskritura eta paper arteko kontuak tarteko, 80 urteko gure aita, aitona, bere baserrietik bota zuen anaiak. Familia handia ginen eta beste modu batera konpondu ginen, baina egun tristeak izan ziren.

Baserrian eta laguntzen zenuen?

Lan askorik ez genuen egiten, baina bagenituen behiak eta ardiak eta... Badakizu, zaharrena hasten zen, eta hura tailerrea joaten zenean hurrengoak laguntzen zuen baserrian, eta horrela txandaka. Eskola 14 urte pasatxorekin amaituko nuen, eta gure aitari ez zitzaion gustatzen 16 urte bete arte tailerrean hastea eta... Ez ziren berehala iritsi! Ordura arte etxean laguntzen!

Gure etxeko lana ura ekartzea izaten zen. Ez zegoen iturriko uririk, eta iturria kilometro batera edo zegoen mendi urarekin; astoarekin garrafoiak hartuta joaten ginen egun biz batean edo. Gurean ez, baina baserrian lan asko zegoen boladetan eskolara joan gabe ere asko egoten ziren, garai hartan.

Agiña baserritik bidezidorra zegoen eta zuzenean jaisten ginen kalera eta eskolara. Aitak Ertxiñako minan lana egiten zuenean ere, bazkaria hara eramaten genion, mutil koskorretan. Lanera ere Guztiok Batera galtzadatik oinez ibiltzen ginen. Galtza barrenak bustita iristen ginen, baina han buzoa jantzi eta kito.

Zure gazte garaiko Aizarna ere beste bat izango zen

Mina garai oparoenak eta herri giro handia izaten zen orduan Aizarnan, eta meza egunero. Erosketak eta denak Aizarnan egiten ziren Konpitteron eta Puertokon. Nekazari herria zen, gari-jotzea egiten zen baserrietan, eta gogoan dut atuneroak etortzen zirela amu bezala erabiltzeko artoen barruko zati zuria jasotzera.

Konpitterok autobusa kontratatzen zuen aste barruan langile jendearentzat, eta asteburuetan, igande arratsaldeetan, irteera beti egiten zuen, Arroabeko Kabañara; edo batera ez bazen, bestera. Orduan kotxerik ez genuen, eta gazte guztiak hor joaten ginen. Aizarnatik ateratzea egundokoa zen!

Politika kontuak ez ditugu aipatu. Anaia Jesus aipatu gabe ezingo dugu ba amaitu?

Egia esan, anaia politika munduan famosoa edo dena delakoa izatea ez da arazoa izan niretzat Aizarnan, baina beti sortzen zuen nolabaiteko urduritasuna eskoltarekin ibiltzen zelako. Konplikatu egiten zuen, esate baterako, trago bat hartzea. Garaiak ere beste batzuk ziren. Anaia gazteena zen, eta, berak bizi zuen egoera ikusita, beti duzu samina barruan nahiz eta ez kanporatu. Dena dela beti saiatu naiz laguntzen egoera zail horietan. Ideologiaren gaintik dago familia. Osasuna ere galdu zuen. Orain iruditzen zait pixka bat errekuiperatu duela, baina urte gogor asko pasa ditu. Familia ere pixka bat alde batera utzi zuela aitortu izan du. Berarentzat dena politika izan da, gehiegi agian.

Zahartuta iristen dira errekonozimenduak ere, eta ari da

han eta hemen aitortzak jasotzen. Faltan ematen dut, egia esan, oraindik Zestoako Udalak ez diola aitortpenik egin.

Gainontzeko anai-arrebok ibili zarete politika kontuetan?

Ni zerbait ibili nintzen. Frankismo garaian hasi nintzen Zestoako mugimendu komunistaren barruan.



Ez zen nire pentsaerarekin ondo lotzen, batez ere boterea lortzeko armak erabiltzeko bidearekin. Guztiok Baten lan egiten nuen garaia izango zen, klandestinitate garaia. Ezkondu ondoren Azpeitiko Alderdi Komunista Europarrean hasi nintzen militatzen. Telefonicako zentrolean "behetik" etorritako jendea ibiltzen zen, eta militante dezente zegoen. Jai eguerdietan aldizkaria banatzen ibiltzen ginela gogoratzen dut. Jendeak zomorro arraro batzuk bagina bezala begiratzen zigun. Telefonica itxi zenean, jendea sakabanutu egin zen, eta alderdia ere pikutara joan zen. Euskadiko Ezkerra zegoen alderdi ezkertiarra orduan, eta han egin nuen militantziarik luzeena. Oraindik ere ondo jasota dauzkat urte haietan erabilitako argazki eta panfletoak. Alderdi hark PSerekin bat egin zuen gero, eta militanteek erabaki behar izan zuten bertan afiliatu edo zer egin. Ni, ez batera, ez bestera, libre geratu nintzen militantzia politikotik. Nire militantzia orain botoa ematea da.

Saio ederra egin dugu berriketan. Bizitza osoari errepasoa eginda ondorio modura hauxe bota digu Egigurrenek: "Adinarekin alde batera uzten dituzu gauza asko, eta bizitzak dituen beste balore batzuk erabiltzen hasten zara; eta horixe egin dut nik ere. Lagunekin duzun lotura zaindu, ibilaldiak egin eta seme-alabei lagundu. Baina Aizarnarekiko dudan lotura hau ezin dut baztertu, eta espero dut webgunea osatzen jarraitzea osasunak laguntzen didan bitartean". Luza-roan izan dadila!

jone bergara

Lo-herri ez izateko, herria esna

ARROABEAK, BESTE BEHIN ERE, ERRESILIENTZIA ETA EKINTZA KOLEKTIBORAKO

Arroabea, zementu-fabrika izan zuelako duen industria-iraganagatik eta landa-nortasun sendoagatik ezaguna, belaunaldien arteko komunitate aktibo bihurtu da. Duela hilabete batzuk, artikulu bat argitaratu genuen: *Lo-herri ez bilakatzeko, esna ametsetan* (Danbolin 256. zenbakia). Bertan, auzoa prozesu parte-hartzaile berri batean murgildu zela kontatzen zen. Arroabea Herri Hezitzailea prozesua OinHerri elkarteak gidatu zuen eta Herri Hezitzaileen filosofiatik auzo bizitzaren diagnostikoa egin, erronkak identifikatu eta plangintza bat prestatzea izan zen helburua. Ez da lehen aldia Arroabea horrelako prozesu batean murgiltzen dena. 2016az geroztik, Zestoako Udalarekin lan-kidetzan aritu da OinHerri. Oinarrian du hezkuntza herritar guztioi dagokigun erantzukizuna dela, jaiotzatik heriotzara arte, bai eskola-ingurunean, bai eskolatik kanpo. Aipatutako parte-hartze prozesu horretatik, sei gako amankomun bildu ziren Arroabean hezkuntza komunitate bat finkatzeko. Horretaz gain, balio horiek praktikara eramateko lehen-tasunezko hiru ekintza zehaztu ziren.

GAITASUNA ERAKUTSI DU URRIAREN 12AN OSPATU BERRI DEN TXIKITASUNIAN HAUNDI EGUNEAN. EKITALDIAK, AUZOAREN ESPIRITU BIZIA OSPATZEAZ GAIN, JARRITAKO HELBURUAK GAUZATZEKO GAITASUNA DUTELA ERAKUTSI DU.



ARROABEA HERRI HEZITZAILEAREN BALOREAK

KOMUNITATE ZAINZAILEA: Bizilagunak gaitzea bilera eraginkorrak egiteko, eta elkarri laguntzeko taldeak sortzea eguneroko zereginetarako, hala nola haurren zaintzarako edo mugikortasunerako. Elkarbizitza sustatzea partekatutako jardueretarako topagune erregularrak sortuz, hala nola solasaldiak edo tailerrak.

(H)ARROARTASUNA: Auzoaren izaera eraikitzaile eta bizia mantentzea, lantzea eta ospatzea.

ANIZTASUNEAN BERDIN ETA PAREKIDE: Inklusioa eta berdintasuna bermatzea jarduera komunitario guztietan, alderdi ekonomiko, kultural eta linguistikoak kontuan hartuta.

PARTE-HARTZAILEA: Adin, genero eta baldintza guztietako pertsonek aktiboki parte hartzeko espazioak sortzea.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA: Eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzea, euskal nortasuna ardatz duten praktika taldeen eta kultur ospakizunen bidez.

HERRI JASANGARRIA (BURUJABEA): Proiektu iraunkorretan parte hartzea bultzatzea, naturguneak zaintzea, autoen erabilera murriztea eta oinezkoen segurtasuna lehenestea.

Alde batetik, auzoan dauden bi eskolen arteko harremanak sendotzeko neurriak lantzea adostu zen. Bestetik, Aisialdia 0 km izenburupean, auzoko haurrentzako aisialdi-eskaintza sortzea proposatu zen eta lantalde horren fruituak laster emango dira ezagutzera. Azkenik, eraiki berri diren egoitza-bloketara iritsiko ziren familia berrientzako harrera-plana garatzea erabaki zen.

Lehenengo bi helburuak bere bidea egiten ari diren bitartean, hirugarrena urriaren 12an gauzatu da **Txikitasunian Haundi** ospakizunean. Auzoko Festa Batzordeak 2016tik bultzatu duen jaia da Txikitasunian Haundi, eta urtez urte hainbat forma hartu dituena. Udazkenero egiten da, "auzoa txikia izan arren, handitasuna dagoela" ospatzeko. Aurten, bizilagun berriei ongietorria egiteko aprobeztatu zen eguna.

Goizean, ikastetxeek ate irekien jardunaldiak egin zituzten. Ondoren, Ezkaizto elkarteak bere jarduera aurkeztu zuen bidez eta eskulanean tailerrari buruzko erakusketa baten bidez. Ederki Elkarateak, auzoko tabernek eta Txara dendak ere bat egin zuten egunarekin. Une aipagarrietako bat herri bazkaria izan zen: 140 lagunek pilotalekua bete zuten. Arratsaldean, jai giroak auzotar guztientzako jarduerekin jarraitu zuen, familia berrien integrazioa sendotuz eta betiko biztanleen arteko loturak indartuz.

AURTENGO TXIKITASUNIAN HAUNDI

ilusio handiarekin prestatu genuen. Uda aurretik egin genuen plana eta ikasturte hasieran joan gara egitaraua finkatzen. Prozesu parte-hartzailan harrera plana gauzatzeko taldea sortu zen, eta aurtengo Txikitasunean Haundi eguna horretarako baliatu izanarekin asmatu egin dugula uste dugu. Egun osoan auzoa bizi-bizi egon zen eta horrek poza eman digu. Arroa oso auzo bizia izan da betidanik, hamaika erronkari egin zaio aurre hemen, eta bizirik mantentzeko giharrak indartsu jarraitzen du. Baina txikitasunaz harro bagaude ere, gero eta handiagora goaz. Biztanle kopuruak gora egin du nabarmen eta azken gorakada udara honetan eman da. Lo-herri bilakatzearen ideiak arduratu egiten gaitu, izan ere, bertatik bertara bizitza egiten ez badugu, asko galdu dezakegu: eskola, denda, tabernak, garraio zerbitzuak... Arroabeko eragile guztiok mahai baten bueltan eseri eta auzotarrei zer eskaini diezaiekegun lantzea, herritik eta herriarentzat, oso aberasgarria izan da. Lana izan da, noski, baina elkarrekin zein indartsuak garen ikusteko balio izan digu, beste behin ere.

Harrera plana lantaldea



LEIRE URTEAGA**(ARROAGOITIK ARROABERA)**

"Larunbatean parte hartu genuen, bai, asko gustatu zitzaigun egun osoko formatua. Goizeko buelta egin genuen eta zerbitzuak zabalik egotea eskertu genuen.



Orokorrean, guztiak ezagutzen genituen, baina, adibidez, eskolan oraindik ez geunden egonda. Izango dira auzoa lo-herri-tzat hartuko dutenak, batez ere umeak eskolara Zumaiara eramango dituztenak, baina jada ikusten dira auzora egiten ari diren gazteak. Bizitzako zein momentutan harrapatzen zaituen, horrek ere eragingo duela uste dut".

LARRAITZ ATENCIAS ETA ARITZ RUIZ**(ERRETERIATIK)**

"Larunbateko eguna oso ona izan zen. Guk dagoeneko ezagutzen genituen denda, tabernak... baina eskola kanpotik baino ez, eta barrutik ikustean oraindik eta itxura hobea eman zigun. Zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan genuen, eta oso jator, eskolaren nondik norakoak esplikatu zizkigun. Txara dendaren aurkezpena bereziki gustatu zitzaigun, eskertzekoa da proiektua aurkezteko eskaini ziguten denbora. Larunbatean komentatu genuen, arroar zahar eta berriekin, etortzen garenek integratu beharra daukagula eta guztiok gure aletxoak jarri auzoan".

**LEIRE ARROJERIA**

"Sekulako egitaraua antolatuta zuten, ekintza askorekin eta egun osokoa. Oso modu polita iruditu zitzaidan auzotar berriok auzoa ezagutzeko. Harrera ezin hobea egin ziguten berriei.



Elkarbizitza sustatzen duen auzoa da. Bizilagunen arteko hartu-emanak handiak dira, eta asko inplikatzeko dira auzoko ekimenetan. Arroako Whatsapp taldea zegoela enteratu nintzenez flipatu egin nuen, pentsa!

Zarautzik nator, kolonia ederra etorri gara handik, kar, kar, kar. Nire asmoa auzoan bizitza egitea da, eta Arroak aukerak ematen ditu horretarako, beraz, bertan ikusiko dugu elkar".

ohiana calparsoro

BERTSOAK

Gaia:
Arroabearen bilakaera
Doinua:
Itsasoari begira

Herrigintzatik, auzolanetik sortzen dirade herriak. Arrua bezalaxe eraiki herri gazte ta berriak. Zementugintzan, trenaren bueltan jaiotzeko izerdiak. Hemeretzigarrenge mendetik eskola ta aldarriak. Zementuz egin zituzten beraz herri honen oinarriak.

Arrua zuten pintzel finenez kolore berdez marraztu. Han paradisu ederragorik ezin zitekeen amestu. Nekazariak, ibai politak, ezereen faltarik eztu, zuhaitz, landare, animaliak bor-bor naturaren esku. Denbora asko igaro arren Sakulupe ezin ahaztu.

Azken urte ta hamarkadetan aldaketak dira azaldu. Sansinenea ta Sakulupe industriak du zapaldu. Etxe berriak, jende andana, horrek eragina al du? Datozenekin elkar hartuaz amarauna deu zabaldu. Guardiazharreko Txara bezala nortasuna ezteu galdu.

Haur kopurua handitzen eta ba al da eskola berririk? Amets, beharrak borrokatuaz ezta guretzat hesirik. Bat eginikan txikitsuna handi dela ikasirik. Eskola eta herria batuz haur ta helduak hezik. Eskola baldin bada bizirik herri ta auzoak bizirik.

Belaunaldi, jatorri, genero denak behar dira josi. Aisia, kirol eta kultura antolatuz hainbat dosi. Denda, lokalak eta parkeak herri proiektu berezi. Herrigintzatik herriarentzat lan egiteak merezi. Arrua bizi, Arruan bizi hazi, hezi ta erosi.



ARROABEKO ETA AIZARNAKO PROIEKTU FOTOVOLTAIKOAK GAUZATZEKO ERABAKIA BERRETSI DU ARGIOLOAK EZOHIKO BATZARREAN

Urriaren 11ko ezohiko batzarrean Argiolak azken hilabeteetan urratutako bidearen berri eman zuen:



DIRULAGUNTZAK. Gipuzkoako Foru Aldundiak bi dirulaguntza onartu ditu: 75.000 euro Aizarnako eta Arroabeko instalazioetarako eta beste 5.025 euro kudeaketa, webgune eta hitzaldietarako.

TEILATUEN LAGAPENA. Irailaren 12an lagapen-hitzarmena sinatu zuten Zestoako Udalak eta Argiola Kooperatibak. Aizarnako frontoiaren teilatu osoa eta Arroabeko eskolaren teilatu zatia erabiltzeko baimena du energia komunitateak 25 urterako, beste bost urteko luzapenarekin, legeak ezarritakoaren arabera.

FINANTZAKETA. Aldundiko dirulaguntza ez denez jasoko instalazioa egin arte, bitartean erabiltzaileen ekarpenak eta mailegua ezinbestekoak izango dira inbertsioa egiteko. Hainbat erakunderen eskaintzak aztertu ondoren, Koop57 erakundearen eskaintza onartu da. Urte amaierarako egitea aurreikusten da. Bestek beste, abal soziala eskatu dute; hori bazkideen artean lortu da dagoeneko.

PROIEKTUEN ZERTZELADAK. Erabiltzaileak Aizarnako frontoitik edo Arroabeko eskolatik 2 km-ko erradioan bizi direnak izango dira. Bi instalazioen artean 100 kW-ko potentzia izango da eta 100.000 euro inguruko aurrekontua. Une honetan proiektuen bideragarritasuna bermatuta dago, herritarren ekarpenekin. Hala ere, erabiltzaile gehiagorentzat plakak badaude. Hori dela eta, Udalak dagokion urteko kuota ordainduz, plaka horiek erabiltzeko konpromisoa hartu du, proiektuei bultzada emanaz. Dena den, herritarrek oraindik ere aukera dute parte hartzeko. Epea zabalik dago.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. Proiektuaren erabiltzaile izateko Argiola Kooperatibako bazkide izan beharko da. Proiektuaren erabiltzaile bakoitzak, bere kontsumoaren arabera kontratatuko du komeni zaiona (1kW, 0,5kW, 0,25 kW...). Ordainketa ere, kontratatutako unitate kopuruaren eta zatiaren proportzioan egingo da. Adibidez:

- **Hasierako ekarpena.** Unitateko (1 kW) 1000 euro. Argiolari, sarrera moduan, egingo zaion kapital ekarpen bakarra da eta berreskuragarria izango da, zenbait baldintza betez gero.
- **Urteko kuota.** Unitateko (1 kW) 100 euroko kuota ordainduko dio erabiltzaileak Argiolari, kudeaketa gastuetarako (asegurua, mantenua, administrazioa...). Kontzeptu hau urtean zehar aurreztutakoaren zati bat izango da.

Aurreztutako puntu horiek irizpide nagusiak dira, baina salbuespenak izan ditzakete; esaterako: Udala, pertsona zaurgarriak, unitate kopuru handia kontratatuzko prest leudeken herritarrak eta merkatariak, etab. Salbuesitako kasu horietan erabiltzaileek urteko kuota osoa ordainduko lukete, baina hasierako ekarpena egiterakoan murrizpenak izango lituzkete: osoa ordaindu beharrean zatia ordaindu, kopuru osoa salbuetsi ere bai, hala ikusten bada, pertsona zaurgarriek trataera berezia eman Gizarte Zerbitzuen aholkuei jarraituz...

Ondo bidean bi instalazioak hilabete gutxiren bueltan amaituta egongo dira, eta herritarrek autokontsumo partekatuen bidez tokiko energia berriztagarria erabiliko dute euren etxeetan.

danbo lin.eus



IV. BEÑAT BENANTXIO IBILALDI NEURTUA EGIN ZUTEN AIZARNAN URRIAREN 5EAN

Agiri Mendi Klubak eta Aizarnako Herri Elkarteak Udaren laguntzarekin elkarlanean Beñat Benantxio ibilaldi neurtuaren laugarren edizioa antolatu zuten urriaren 5ean.

Bi ibilbide izan ziren aukeran, 25 eta 10 kilometroko luzerakoak. Mendi martxaren ondoren, bazkari herrikoia izan zen plazan eta egunari amaiera bikaina emateko, arratsaldean, Tio Ternonen "FreshCool" dantza ikuskizun umoretsua izan zen eta jendetza elkartu zen.



HASI DIRA "KONTAIDAZU IPUIN BAT" SAIOAK LIBURUTEGIAN

Urrian hasi eta maiatzean amaituko dira Euskara Foroak bultzatutako "Kontaidazu ipuin bat" saioak. Hamabost egunean behin edonork ipuin kontalari aritzeko aukera du herriko aurren gozamenerako. Parte hartzeko, eskolan edo liburutegian eman daiteke izena.



2025EAN HONDAKINEN TASEK %40KO IGOERA IZANGO DUTE

Urriaren 15ean Zestoako Udalak ezohiko bilkuran onartu zituen 2025. urterako ordenantza fiskalak. Proposamena gehiago osoz onartu zen, EAJren udal taldearen kontrako botoekin. Puntu nagusien artean ordenantza berrietan zergak % 3 igotzea eta hondakinen tasa % 40 igotzea zeuden.

Hondakinen tasaren igoera Europako zuzentarau baten ondorioa da. Zuzentarau horren arabera, 2025eko apiriletik aurrera, hondakinen bilketaren eta tratamenduaren kostu osoa zergen bidez estaliko da. Ezohiko batzarrean adostutako igoerak berdin eragingo die etxebizitzetzi, dendei, ostalaritzari eta industriei, eta horrekiko desadostasuna agertu zuen oposizioak.

Zestoako EAJk, adierazi zuenez, "ez dugu izan ez denbora, ez aukera inongo ekarpenik planteatzeko edo eztabaidatzeko" eta bestalde, "ez dugu onartzen merkataritza eta ostalaritzakoei horrelako igoera ezartzea beraien zerbitzuaren kostoa superabita dagoenean".

Kritikak kritika, gobernu-taldeak nabarmendu zuen onartutako ordenantzek batz bestekoaren azpitik jartzen dutela Zestoa, Gipuzkoan antzeko tamaina duten beste herri batzuekin alderatuta, igoera fiskalen kopuruari eta tamainari dagokienez.



PALESTINAREN ALDEKO BI ELKARRETARATZE EGIN DIRA

Gernika Palestina Herri Ekimenak deitu zuen bat eta Gazte Asanbladak bestea.



ENDOIAKO BILTOKIA IREKITA DAGO BERRIZ

Hiru hilabete itxita egon ondoren, Endoiako biltokia aste honetatik aurrera irekita egongo da. Zestoako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak Elizarekin lagapen hitzarmena sinatu dute eta baita teilatua berritu ere. Gaztendoia auzo elkarteak hartu du eraikina kudeatzeko ardura eta aurrerantzean bertako eta inguruko bizilagunek biltokiko zerbitzuez baliatzeko aukera izango dute. Argazkian, auzo elkarteko ordezkariekin batera, Mikel Arregi alkatea eta Itziar Borda, Itziarko Auzo Udaleko zinegotzia.



MUNICHEKO MARATOIAN SEI ZESTOAR

Urriaren 13an Munichen egin zen maratoian parte hartu zuten Dani Mayo, Garikoitz Tabasco, Pedro Cabanillas, Mikel jauregi, Gorka Errezil eta Aritz Elustondo zestoarrek. Parte hartu bakarrik ez, izan ere, 43. postuan sailkatu zen Aritz Elustondo. Guztira 2 ordu eta 48 minutu behar izan zituen 42 kilometro pasako ibilbidea egiteko. Sei minutu gehiago behar izan zituen Garikoitz Tabascok. Pedro Cabanillasek 60 urterekin egin zuen maratoia. Bere zortzigarren maratoia izan da. Duela 18 urte inguru hasi zen taldea maratoiak prestatzen. Madrilen egin zuten aurrenekoa eta ordutik Berlinen, Amsterdamen, Dublinen eta, azken honetan, Munichen egin dituzte maratoiak.

Euskara salba dezagun baino, euskarak gu salba gaitzan

Tertulia Lorea Agirreekin

Azaroaren 13an, asteazkena

18:00 - 19:30

Udaletxeko aretoan



EUSKARAREN ALDEKO LANAK ZESTOAN



@erniosukaldeak

Harzulia hiribidea, 51 - AZPEITIA 943 815 705 - 943 150 063



Eman bultzada, indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

urriak 24 - azaroak 14



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€

errigora.eus

Saskien balioaren %25 Nafarroa erdialde eta hegoaldeko (Agerreko) euskalgintzara bideratuko da



ZESTOA EGUNA OSPATU ZEN URRIAREN 5EAN UREPELEN

ZESTOA ETA UREPELEREN ARTEKO
SENIDETZEA TARTEKO, UREPELE
EGUNA OSPATU ZEN ZESTOAN
EKAINAREN 15ETAN ETA ITZULERAKO
BIDAIA EGIN ZUTEN ZESTOARREK
UREPELERA URRIAREN 5EAN.

Autobus bete herritar joan zen Zestoatik bertara. Agiro Mendi Taldeko kideek Zestoa eta Urepele arteko ibilbidearen azken zatia osatu zuten Artesiatik 17 kilometroko bidea eginez eta oinez bertaratu ziren Urepelera. Goizeko 11:00etan hasi ziren ospakizunak. Aldude-Urepeleko Klika, Zestoako txaranga eta Itxaropena Dantza Taldearen emanaldiarekin. Oskar Alberdi eta Aitor Salegi bertsolari zestoarrek eta Haira Aizpurua eta Amets Arzallusek saiotxoak egin zuten Uztapide eta Xalbador gogoan. Eguerdiko 14:00etan bazkari herrikoia izan zen eta ondorenean ere egin zuten beste saio bat.

Arratsaldean pilota partiden txanda izan zen. Xabat Sasiain eta Julen Odriozola "Txapei" zestoarrek Esain-Uhalde Aldudeko pilotariein aurka jokatu zuten. Ondoren, Urmeneta-Ladis Galartza eta Mikel Goñi-Pascualen arteko partida ere izan zen. Jaia Kontrabanda taldearen kontzertuarekin amaitu zen.



IRRABIA



Ba nik uste dut denok egin behar dugula zerbait elkarrekin. Zer? Ba ez dakit, agian helduontzat zinea edo ondo legoke, sarreratxo batekin eta gero sarrera horrekin tabernetan zerbait ematen dizutela edo...

marina pons
48 urte



Futbol-zelaia herrigunera ekartzea polita litzake, hori da jende gehien eta din guztietakoak mugitzen dituen ekintza eta horrek asko lagunduko lukeela uste dut. Bestela hilean behin tabernariak zerbait antolatzea, agian prezio bereziekin edo...

jon mirande
26 urte



Denak batera, bai Udalak, bai tabernariak eta baita herritarrek ere. Hilean behin bada ere zeozer jarri, ostiraletan edo musika edo zerbait!


jesus udabe
58 urte



Bakoitzak bere partetik ere bai ezta? Etxean geldituta jai dago! Ez dakit ba nik...

txaro uria
64 urte

NEGU PARTEAN
HERRIAN GIRO
GEHIXEAGO EGON
DADIN NORK EGIN
BEHARKO LUKE
ZERBAIT??




(Erantzuleak guztira: 89)



- Denek elkarlanean
- Udalak
- Tabernariak
- Herritarrek
- Eragileek



Zurbanoneko kantoiko sarreran lurreko baldosak solte daude.



Hasi dituzte herriguneko sarrera-irteerak hobetzeko lanak.

SANTU GUZTIEN EGUNA



Zentroak eta lore-sortak

Egin zure enkargua egun berezi honetarako
Puedes pedirnos tu encargo para este día tan especial

697 250 292 | garden@kimubat.eus



BUZARRA

URRIA

27 IGANDEA
Arroa Bira Ezkiztok antolatuta.

31 OSTEGUNA
Arimen Gaua Arroabean. 17:15 ipuin kontaketa. 18:00 bizkotxo lehiaketa. 18:30 ibilaldia antortzekin. 18:45 txokolatea eta photocall-a. *Gau Beltza Zestoon. Ipuin kontalaria, kalegira...

AZAROA

06 ASTEAZKENA
Jubilatuaren irteera Ordiziako azokara. Ondoren, Mandubiko Bentan bazkaria.

SAN MARTIN JAIK LASAON

11 ASTELEHENA
11:30 Meza. Ondoren, jubilatuentzat hamaiketakoa.

15 OSTIRALA
20:00 txupinazoa. Ondoren, pintxo-triki poteoa Iratitz eta Unai trikitilariekin

16 LARUNBATA
13:00 umeen txupinazoa. 14:00 umeentzat bazkaria. 16:00-19:00 puzgarriak. 17:00 txokolatada. 20:30 Bertso afaria. Bertsolariak: Andoni Egaña eta Amets Arzallus. Trikitilariak: Hitzeder eta Txibilter

13 ASTEAZKENA
18:00 Lorea Agirrerekin kafetertulia Euskara Foroak antolatuta, udaletxeko batzar aretoan.

17 IGANDEA
Baserritar eta artisau azoka Arroabean.

18 ASTELEHENA
Musikalean egingo dute musika eskolakoek. 17:15 Diploma banaketa. Ondoren, kalejira.

22 OSTIRALA
18:00 Indarkeria matxistaren ukapenari buruzko hitzaldia Gaztetxea eta Itaiak antolatuta * Zestoako Musika banda eta Rockaleanen kontzertua.

23 LARUNBATA
Xaboi tailerra Arroabean.

25 ASTELEHENA
18:00 Kontzentrazioa Itaiak deituta.

26 ASTEARTEA
19:00 Garbiñe Larrearen "Sendabelarrekin kosmetika" liburuaren aurkezpena, Potalen.

*** KEPA ZABALEGIREN GIPUZKOAKO KEGUNEKO TXIMELETEN ERAKUSKETA.** Azaroak 12: 17:00-19:00 (Zestoa Osasuntsu programaren baitan). Azaroak 13-16: Goizez 10:00-13:00 eta arratsaldez 17:00-20:00.

*** AGIRO MENDI ASTEA.**
Azaroaren 25etik 30era.

*** JUBILATUEN ASTEA.**

25, astelehena: bingo arratsaldeko 16:00etan jubilatuen tabernan.

26, asteartea: karta jokoa, Gisasola egoitzan, 16:00etan.

28, osteguna: karta jokoa, San Juan egoitzan, 16:00etan.

29, ostirala: gaztaña jana, 18:00etan Gurutze jubilatuen tabernan.

30, larunbata: ibilaldia eta mokadutxoa jubilatuen tabernan.

01 igandea: meza, elkartean aurten hildako guztien alde, eta bazkaria jubilatuen tabernan.

AZAROKO AGENDA GAZTELEKUAN:

5: Saku termikoa (1 eta 2 zikloak) bi saio. 16:45 eta 18:00. Izena eman behar da.

7: Jolas librea (3. zikloa)

8: Jolas librea (DBH)

9: Sukaldaritza: bizkotxoa (DBH)

14: Saku termikoa (3. zikloa)

15: Azaroak 25 lanketa. (DBH)

21: Saku termikoa (3. zikloa)

22: Saku termikoa (DBH)

23: Jolas librea (DBH)

28: Azaroak 25 lanketa. (3. zikloa)

29-30: Olentzeroa prestatu (DBH)

Haurrentzat JOLASAK, BARBANCXO AISIALDI TALDEAREKIN:

-Herrigunean HH: azaroak 6 eta 20 (17:00, gaztelekuan)

-Herrigunean LH: azaroak 8 eta 22 (17:00, gaztelekuan)

-Aizarnan: azaroak 8 eta 22 (17:30, kultur etxean)

-Arroabean: azaroak 15 eta 29 (17:30, Elkargunean)

KONTAIDAZU IPUIN BAT

Azaroak 12 eta 26
17:30ean liburutegian.

EPELIAN

Azaroak 10, 17 eta 24
kultur etxean.

FERREGI

BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez Joan Fernandez
695 721 015 690 108 996 667 537 892

Taxi Zestoa



9 Eserleku

Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizulinicadental@gmail.com
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBALDES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBALDES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



Fisioterapia
Osteopatia

943 29 08 99

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa

943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015



unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairl
LUTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tlf: 943 148 010

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA